



IRIZPEN ZK.: D20-005

UDAL BATEKO LANGILEEN DATU BIOMETRIKOAK BILTZERAKOAN ESKAINI BEHARREKO INFORMAZIOARI BURUZKO IRIZPENA

AURREKARIAK

LEHENENGOA: Udal bateko sindikatu-atal batek Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren irizpena eskatzen du. Eskari-idazkian azaltzen da galdera egiteko arrazoia: Udalak “udal langileen hatz-marken datuak jasotzen ditu duela hiru urtetik baino gehiagotik hona, horri buruz inolako informaziorik edo baimenik eman gabe”. Idazkiarekin batera, Udaleko datuak babesteko ordezkariari gai horri buruz egindako informazio-eskariaren kopia aurkeztu dute. Eskari horrek honako hau dio:

«Sindikatu-atal honek informazioa eskatzen du, ...(e)ko Udaleko langileengandik jasotako datu biometrikoak tratatzeari eta biltzeari buruz eta Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorren 13. artikulua tratatzeko moduari buruz, artikulua horretan ezartzen baita zein informazio eman beharko den datu pertsonalak interesdunarengandik jaso direnean.

13 artikulua Datu pertsonalak interesdunarengandik jaso direnean eman beharreko informazioa

...».

BIGARRENA: Otsailaren 25eko 2/2004 Legearen, Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzkoaren 17.1 artikuluko n) apartatuak honako eginkizun hau esleitzen dio Datuak Babesteko Euskal Bulegoari:

«Lege honetako 2.1 artikuluko herri-administrazioek, erakundeek eta korporazioek datu pertsonalen babesari buruz egiten dizkieten galderei erantzutea, eta lege honen aplikazioaren pean dauden datu pertsonalen tratamenduari buruz beste pertsona fisiko edo juridiko batzuek egiten dizkieten galderei erantzutea».

Beraz, araudia kontuan hartuta, Datuak Babesteko Euskal Bulegoari dagokio egin diguten galderari erantzuteko irizpena egitea.

KONTUAN HARTZEKOAK

I

Kontsulta honetan aztertu behar den auzia administrazio publiko bateko langileengandik informazioa biltzean eman behar den informazioari buruzkoa da; kasu honetan, gainera, hatz-markak biltzeari buruz ari gara.



Hasteko, nabarmendu beharko litzateke datu pertsonalak babesteari buruz gaur egun honako lege hauek daudela indarrean: bata da 2018ko maiatzaren 28az geroztik indarrean dagoela Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko (EB) 2016/679 Erregelamendua, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokionez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa eta 95/46/CE Zuzentaraua indargabetzen duena (Datuak babesteko erregelamendu orokorra); eta bestea da Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa, 2018ko abenduaren 7az geroztik indarrean.

Era berean, horiez gain, otsailaren 25eko 2/2004 Legea, Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzkoa ezarri behar da Euskal Autonomia Erkidegoan, baita lege hori garatzeko araudia ere, aurreko beste arau horiek xedatutakoarekin kontraesanean ez badago.

Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorraren 4.1 artikulua honela definitzen ditu datu pertsonalak:

«Pertsona fisiko identifikatu edo identifikagarri (“interesdun”) bati buruzko informazio guztia; pertsona fisiko identifikagarria da zuzenean edo zeharka, eta batez ere identifikatzaile baten bitartez, identifika daitekeen pertsona oro; identifikatzaile hori izen bat izan daiteke, identifikazio-zenbaki bat, kokapen-datuak, online identifikatzaile bat edo pertsona horren nortasun fisikoari, fisiologikoari, genetikoari, psikikoari, ekonomikoari, kulturalari edo sozialari buruzko elementu bat edo gehiago».

Eta Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorraren 4.2. artikulua definitzen du zer den datu pertsonalen tratamendua:

«Datu pertsonalen gainean edo datu pertsonalen multzoen gainean egiten den edozein eragiketa eta eragiketa-multzo, prozedura automatizatuak erabilia zein erabili gabe, hala nola: datu-bilketa, erregistratzea, antolatzea, egituratzea, kontserbatzea, egokitzea edo aldatzea, ateratzea, kontsultatzea, erabiltzea, transmisioz lagatzea, hedatzea edo irispidean jartzeko beste edozein forma, datuak alderatzea edo interkonektatzea, mugatzea, ezabatzea edo suntsitzea».

Bi kontzeptu horiek ikusita, ondorioztatu ahal dugu galderaren xede den gaian datu pertsonalen tratamenduak daudela, eta tratamendu horiek Europako Erregelamenduan aldarrikatutako printzipioak bete beharko dituztela; kasu honetan gardentasun-printzipioari helduko diogu, irizpen-eskaria horri buruzkoa baita.

II

Europako arauaren alderdi berrien artean nabarmenenetako bat Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorraren 5. artikuluan gardentasun-printzipioa argitaratu izana da; hain zuzen ere, gardentasun hori datuak tratatu aurretik eskaini behar den informazioari lotzen zaio. Hala, Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorraren 5.1.a) artikulua xedatzen duenez, datu pertsonalen tratamendua legezkoa, fidela eta gardena izango da, interesdunari dagokionez. Adierazpen orokor horren ostean, Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorrak hiru manutan aztertzen du informazioaren gardentasuna. 12. artikuluan formari dagokionez kontuan hartu beharrekoak ezartzen ditu, eta geroago, 13. eta 14. artikuluetan, datuak interesdunarengandik berarengandik jasotzen direnean (13. artikulua) edo hirugarren batengandik jasotzen direnean (14. artikulua) zehazki zer informazio eman behar den azaltzen da.



Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorraren 12. artikulua araber, arduradunak informazioa "laburki, gardentasunez eta erraz ulertzeko eta eskuratzeko eran eta hizkera argia eta erraza erabilita" eman beharko du. Informazioa idatziz edo beste bitarteko batzuen bidez eskuratuko da, eta ahoz ere eman ahal izango da.

Aztergai dugun kasuan, datuak ukituengandik beraiengandik jasotzen direnez, biltzean eman beharreko informazioa Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorraren 13. artikuluan ezarrita dagoena izango da:

- a) tratamenduaren arduradunaren identitatea eta harremanetarako datuak eta, halakorik badago, haren ordezkariarenak;
- b) datuak babesteko ordezkariaren harremanetarako datuak, halakorik badago;
- c) datu pertsonalen tratamenduaren helburuak eta beraren oinarri juridikoa;
- d) tratamendua 6.1 artikuluko f) letran oinarritzen bada (interes legitimoa), tratamenduaren arduradunaren edo beste hirugarren baten interes legitimoak;
- e) datu pertsonalen hartzaileak edo hartzaile-kategoriak, halakorik badago;
- f) halakorik badago, tratamenduaren arduradunak asmorik duen ala ez datu pertsonalak hirugarren herrialde bati edo nazioarteko erakunde bati transferitzeko, eta Batzordearen egokitzapen-erabakirik badagoen ala ez, edo, 46. edo 47. artikuluan edo 49.1 artikuluko bigarren paragrafoan adierazitako transferentzien kasuan, berme egokiekiko edo egokituekiko erreferentzia eta berme horien kopia bat lortzeko bitartekoekikoa edo haiek eskuragarri jarri diren tokiarekikoa.

13. artikuluko 2. apartatuan ezartzen denez, aipatutako informazioaz gainera, informazio hau helaraziko dio tratamenduaren arduradunak interesdunari datu pertsonalak eskuratzen dituen unean, zeina ezinbestekoa baita datu-tratamendu fidela eta gardena bermatzeko:

- a) datu pertsonalak noiz arte kontserbatuko diren edo, hori ezinezkoa bada, epe hori zehazteko zer irizpide erabiliko diren;
- b) eskubidea duela berari buruzko datu pertsonalak irispidean izateko, zuzentzeko edo ezerezteko, tratamendua mugatzeko edo haren aurka egiteko, edo datuok transferitzeko;
- c) tratamendua 6. artikuluko 1. apartatuko a) letran (adostasuna) edo 9. artikuluko 2. apartatuko a) letran (datu-kategoria bereziak direnean eman beharreko berariaz baimena) oinarrituta dagoenean, eskubidea duela adostasuna edozein unetan kentzeko, eta horrek ez duela inongo eraginik adostasuna kendu aurreko tratamenduaren zilegitasunean;
- d) eskubidea duela kontrol-agintaritzaren batean erreklamazio bat aurkezteko;
- e) datu pertsonalen komunikazioa lege- edo kontratu-eskakizuna den, edo kontratu bat sinatzeko betekizuna, eta interesduna behartuta dagoen ala ez datu pertsonalak ematera, eta jakitun dagoen datu horiek ez emateak zer nolako ondorioak izango dituen;
- f) erabaki automatizatuak daudela, profilak egitea barne, zeinak 22. artikuluko 1. eta 4. apartatuetan aipatzen baitira, eta, kasu horietan behinik-behin, erabilitako logikaren gaineko informazio esanguratsua, eta interesdunarentzat tratamendu horrek duen garrantzia eta izan ditzakeen ondorioak.

Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorraren 13. artikulua, 3. apartatuan xedatzen duenez, datu pertsonalen geroko tratamendua ez badator bat datuak biltzearen helburuarekin, helburu berri horri buruzko informazioa eta 2. apartatuaren argitan



beharrezko irizitako beste edozein informazio gehigarri helaraziko dio tratamenduaren arduradunak interesdunari, geroko tratamendu hori baino lehenago.

Halaber, 13. artikuluko 4. apartatuaren arabera, aurreko apartatuetan ezarritako informazioa ez da eman behar izango, baldin eta interesdunak jadanik informazioa eskura badu.

Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorrak ezartzen duenez, tratamenduaren arduradunak askoz informazio gehiago eman beharko du; horren ondorioz, kontrol-agintariak informatzeko betebeharra nola gauzatu azaltzeko gida bat argitaratu dute. Gida hori jarraian datorren loturan dago eskuragarri:

http://www.avpd.euskadi.eus/contenidos/informacion/20161118/eu_def/adjuntos/modeloclausulainformativa-eu.pdf

Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorren 13. eta 14. artikuluetan bildutako zerrenda luzea kontuan hartuta, kontrol-agintariak hainbat geruzatan antolatutako informazioa sustatu zuten, erantsitako gida horretan ezartzen denez, eta informazio-prozedura hori Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko Lege Organikoaren 11. artikuluan araututa dago:

«11. artikulua. Gardentasuna eta ukituari informazioa ematea.

1. Tratamenduaren arduradunak datu pertsonalak ukituarengandik jasotzen baditu, (EB) 2016/679 Erregelamenduaren 13. artikulua ezarritako informazioa emateko eginbeharra bete ahalko du ukituari oinarrizko informazioa emanez, zeina artikulua honen hurrengo apartatuan jasotzen baita, bai eta helbide elektronikoa bat edo gainerako informazio guztira iristea –modu erraz eta berehalakoan– ahalbidetuko dion beste baliabide bat emanez ere.

2. Aurreko apartatuak aipatzen duen oinarrizko informazioak, gutxienez, hauek jaso beharko ditu:

a) Tratamenduaren arduradunaren eta, hala badagokio, haren ordezkariaren nortasuna.

b) Tratamenduaren helburua.

c) (EB) 2016/679 Erregelamenduaren 15.etik 22. artikulura artekoek ezarritako eskubideak egikaritzeko aukera».

Informazioa emateko betebeharrak hori doi-doi zehaztutako kasuetan soilik saihestu daitezke, zehazki Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorren 13.4 eta 23. artikuluetan azaltzen direnetan; horrenbestez, gure iritziz ezin zaio aplikatu ustez kontsultaren xede den kasuari.

Azkenik, gaur egun datu biometrikoak Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorren 9. artikuluan azaltzen diren kategoriatan berezietan sartzen direla kontuan hartuta, arduradunak halako datuen tratamendua egin aurretik aztertu beharko lukete tratamendu hori egitea neurritzeko al de, lortu nahi den helburua kontuan hartuta, eta interesdunari informazioa eman beharko liekete.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko otsailaren 12a